

FAGOLLAGA AUZOKO ESKOLA

Eulali Aranburu Urkizu

ESKOLA MUNIZIPALA

Udaletxearen esku dagoen eskola. Udalak jartzen du lokala eta horren mantentze lanaren ardura du; maisu-maistren soldatak ere herriak, udalak, ordaintzen ditu. Haurren heziketaren segimendua Komisio Munizipalaren ardurapean dago; jarraipen hori uztaileko azterketen bidez egiten da.

ESKOLA PUBLIKOA

Delegazioaren ardurapean dagoen eskola. Eskola Munizipalak Publikoak egin ziren. Ordura arte Udalak zituen ardurak, gero Delegazioak hartu zituen.

ESKOLA UNITARIA

Gela bakarreko eskola. Maisuak edo maistrak moldatu behar izaten zuen, ahal zuen bezala, denekin: ume txikienekin, koskorrekin eta handienekin.

ESKOLA RURALA

Herritik kanpo, urutiagoko auzotan, dagoen eskola. Esaterako, Fagollaga auzoan dagoen eskola. Eskola hauetan haur kopuru handia biltzen zen: 50-60 haur, 6 urtetik 14 urte artekoak. Eskola rurala izateak ez du distantzia bakarrik kontuan hartzen, baizik jendearen bizibidea ere: normalean baserriko lana dute ogibide eta, lau urtarotan lanaren desberdintasunak markatzen zuen bizitzaren erritmoa eta ... haurren eskolaratzea.

Historia apunteak jasotzeko asmoz, gustura hasi naiz Fagollaga auzoko eskolari buruz zerbait idazten. Lehen pausoei Udal Artxibora eraman naute. Han sartu naiz eta hantxe paper artean ibilia nautzue zer ikusi eta zer aurkituko.

Hernanitik Nafarroara doan bidea hartu eta kilometro batzuetara dago Fagollaga auzoa. Lehenengo dokumentuetan Fagollaga "Pagolla" izenez agertzen da, baserri ugariz osatuta dagoen auzoa eta seme-alaba askoko familiak nekazaritzatik bizi ziren, hori baitzuten ogibide.

Hainbat artxibo liburu eta dokumentutan jasotzen da maisu - maistrak zuen kexa edo arazoa erakusteko. Negua zen eskolara haur gehien joaten zen urtaroa, baserriko lanak gutxitzen zen garaia; udaberrian, berriz, baserriko lanak ugaritzen hasten ziren (neguan lozorroan egon zen lurra astindu egin behar izaten zen -goldatu, arretu, markatu, lur koskorrak apurtu- eta ondoren hazia erein: patata, baba, artoa, babarruna, ilarra, arbia, erre-molatxa...) udan, aldiz, belarrak, otorduak zelaira edo sorora eraman beharrak... Lan horietarako eskola garaiko haurrak baserrian laguntza handia ziren. Baserrietako haurrak lanean ederki ohituak izaten ziren. Zenbait eskolatan maisu - maistren soldata eskasa ikasleek hilean zerbait ordaindutaosatzen zen. Haurrak joaten ez ziren hilabeteetan ez zuten ordaintzen.

Sei urterekin hasten ziren eskolan eta 12 urterekin bukatu, nahiz legeak 14 urte arte joan behar zela agindu. Hamabi urterekin hasten ziren mutil asko morrontza lanetan, lan horren beharra baitzuten baserrietan. Neskak, berriz, neskame lanetan jartzen ziren. Egun batez amak semeari honela esan omen zion:

"Hamabi urte egin dituk eta hoa morroi, geroxeago jarraituko duk".

FAGOLLAGA AUZOKO ESKOLA XIX. MEN- DEAN: 1842 - 1900 arteko Fagollaga auzoko eskolako historia.

Ondorengo lerrotan erraz ikusiko dugu noiztik dauden auzo honetako haurrak eskolatuak.

- 1842an Jose Fermin Ardangaray da Fagollaga auzoko haurren edukazioaren arduradun. **Ba-zen orduan eskola!**
- 1848ko abenduaren 7an Juan Antonio Ibargu-
renek du Fagollaga auzoko haurren instrukzio
ar-dura: lan hori egiteagatik urtean 100 erreale-
ko diru laguntza izanen zuen. Maisu honek
Uda-lari azaltzen dio motz gelditzen zaiola diru
la-guntza hori, eta komeni den moduan begira-
tzeko. Urte batzuk beranduago, 1854ko maia-
tzaren 14an, Juan Antonio Ibargurenek Udalari
berriro idatzi zion kexa agertuz. Handik gutxi-
ra, 1854ko ekainaren 29an, Fagollaga auzoko es-
kola utzi eta Pikoagara pasa zen eta kontuan
izateko be-rari tokatzen zitzaion diru eskupeko
partea azaltzen dio Udalari.
- 1878ko ekainaren 19an Fagollaga auzoko gura-
soek eskatzen diote Hernaniko Udalari eskola
publiko bat bertako haurrentzat, auzo hau he-
rritik urruti gelditzen dela-eta. Honako hauek
izenpetzen dute: Nikolas M^a eta Miguel José
Liceaga -anaiak- Ignacio Etxeberria, Roke Goe-
naga, Sebastian Elola, Jose M^a Zaldua, Jose Eli-
cegui, Juan Tomas Alday eta Juan Ramon Las-
kibar.
- 1883ko urriaren 21an Josefa Agustina Gabilondo
Hernaniko biztanlea eta Fagollagan bizi denak
Udalari eskatu zion aspaldian eginiko eskariari
erantzuteko, hau da, auzoan eskola publiko bat
behar zutela. Ordurako, emakume honek den-
bora dezente zeraman auzoan eskolak ematen
lokalik eta etxebizitzarik gabe.
- 1888ko otsailaren 12an Juana Garin y Sarobe ti-
tuluk ez duen 18 urteko aranoarrak baimena
eskatzen du Fagollaga auzoko eskola ruralean
erakusteko. Zazpi urte pasa ondoren, 1895eko
urriaren 10an maistra titulua atera nahi eta ezin
zuela Fagollaga auzoko eskolan segitu adieraz-
ten du; egun gutxira libre utzi zuen plaza Maria
Goñi Liceagak eskatu zuen.
- 1898ko urriaren 20an Maria Goñik plaza libre
uzten du eta Elisa Espelosin Camporredondori
ematen zaio; lan saria urteko 125 pezetakoa
izango da, eta gela baten eskubidea.
- 1899ko maiatzaren 1an Elisa Espelosin maistrak

idatziz kexa egiten dio Udalari: eman dioten ge-
la hori oso kondizio txarrean dagoela, erortze-
ar, eta bizia ere arriskuan duela.

Osasun arazoengatik ezin duela lanean jarraitu
Fagollaga auzoko eskola ruralean Udalari jaki-
narazten dio 1902ko azaroaren 7an.

FAGOLLAGA AUZOKO ESKOLA "PUBLI- KOA" XX. MENDEAN

Fidel Ganzarain Olano jauna maisu ruralak 1901.
urtean Fagollaga auzoko eskolako plaza eskatzen
dio Udalari, haurrei lehenengo letrak erakusteko.
Bi ikasturte egin ondoren, 1902ko abuztuaren 17an,
bere dimisioa aurkezten dio.

Ignacia Beldarrainek hartzen du plaza 1903 eta
1904 urteetan. Egunez 37 haurrei ematen die esko-
la eta ilunabarretan gau eskolak ematen ditu. Ge-
ro, 1904ko martxoan, Juana de Garin hasten da es-
kolan, 1904ko ikasturteko abendura arte.

Casilda Liceaga Larburu izendatzen dute Fagolla-
ga auzoko Eskola Ruralean 1906ko urtarrilaren
7an. Eskolan 60 haur daude. Casilda izan zen lehe-
na Eskola Publiko berrian.

FAGOLLAGAKO ESKOLA PUBLIKO BERRIA

Ikusi dugu nola 19. mendeko azken urteetan Fagollaga auzoan Eskola Publiko berri bat zorrotz eskatzen zutela gurasoek. Horrela, 1900eko ekainaren 3an lokal zaharra utzi zuten egoera arriskutsuan zegoelako. Ekainaren 25ean Korporazioak erabaki zuen eskola berri bat egingo zela. Orduan hasi ziren proiektuak, planoak, gastuak... Fagollaga auzoko Eskola Publikoa egiteko. Eskola berria non egin erabakitzeke, auzoko gurasoekin elkarrizketak hasten dira. Ereñozukoek Ereñozun nahi omen zuten eta Fagollagakoek, berriz, Fagollagan. Azkenean, erdian, Ereñozu eta Fagollaga artean egin zen. Tokia etxeetatik aparte, karretera ertzean, Urumea ibaia-
ren ondoan, zuhaitzez inguratua, bueltan etxerik ez, garai hartan automobilen zara-
tarik gabe, Urumearen ur hotsa bakarrik.

“Etxeak leiho argitsuak izango ditu. Paraje menditsua izanik udan fresko eta neguan epel izango da. Gelak 48 ikasleentzako izango du tokia. Denentzat eseri eta idazteko pupitreekin. Errege Dekretuak agintzen duen baino kapazitate handiagoarekin, 60 m²”.

Artxiboan jasota daude zenbait dokumentu eskola berriari buruz:

...

Miguel Fernández Urias Hernaniko Sekretario jaunak 1905eko maiatzaren 8an izenpetzen du Fagollagako Eskola berria egiteko lehen harri jartzeko akta: “Espainiako Alfonso XIII.aren erregetzan, El Quijote obra idatzi zela hirugarren mendeurrena betetzen den honetan”, Hernaniko Alkatea Felipe Miner Liceaga jauna, On Alfonso M^a Zabala Parrokiako bikarioa eta Hernaniko Udaletxeko Korporazio osoa inguratzen dira Fagollaga auzora Eskola berri bat eraikitzeke “lehen harria jartzea” ekitaldira. Arratsaldeko lauretan lehen harria bedeinkatu eta jarriko da; hain garrantzia handiko ekitaldian auzoko biztanleak bertan dira.

Proiektua Luis Elizalde arkitektoarena da eta obrak Ignacio Santa Kruzek egingo ditu.

...

Hogei urte ondoren, 1921eko uztailaren 9an, Florentino Sarasquetak Hernaniko Sanidade Munizipaleko Inspektoreak Udalaren aurrean salaketa egiten du: Fagollaga auzoko eskolan egin duen inspektzioan konprobatu du komunak egoera txarrean daudela eta arrisku handia direla osasun publikorako. Urrian, Ubarretxena anaiak, Ereñozu baserriko terrenoan dagoen iturriaren jabeak, ur analisiak egin eta ona zela ziurtatu ondoren, Fagollaga auzoko eskolara ura eramateko proiektua egiten da.

Eskola berria bada ere, ez baita libratzen konponketetatik.



CASILDA LICEAGA LARBURU Epelen, Hernani, jaio zen 1885eko abenduaren 27an; 92 urte zituela 1978ko abenduaren 14an hil zen.

Heziketa eta ikasketak "Ama Sortzez Garbiaren" kolegioan egin zituen.

Feliciano Irazusta jaunarekin ezkondu hiru seme-alaba izan zituzten: Leandro, Axun eta Santiago. Etxekoandre txukun eta jatorra eta haurrak hazteko eta hezteko diziplina handiko emakumea zen; zorrotza, lehendabizi bere buruarekin eta gero besteekin. Denean jakintsua, bazirudien zekien guztia neska-mutilei erakutsi beharra ziela. Gainera, maistrek ikasketez gain, eskuak ere iaioak behar izaten zituzten neskei josten erakusteko. Casildak asko zekien horretaz.

Maistra municipal bezala, 47 urte irakaskuntzan egin ondoren, 1954ko abenduaren 31n jubilatu zen; 70 urterekin utzi zuen eskola eta Hernanin, Kale Nagusian, bizitzen jarri zen.

Senarrak, Feliciano, Pepe Puig jaunaren fabrikako bulegoan lan egiten zuen.

Bestalde, Ereñozuko biztanleek 1918ko abuztuaren 26an azaldu zioten Udalari auzoan gau eskolaren beharra; izan ere, hurrek oso goiz uzten baitzuten eskola eta gurasoak kexa ziren seme-alabei azkar ahazten zitzaizkielako haurtzaroan ikasitakoak. Feliciano Irazusta Casildaren senarrak gau eskolak ematen hasi zen 1919an Fagollagako Eskola Munizipal eta Ruralean. "Maestro de adultos" izan zen.

Horrela, Gregorio Mendia Goizueta Alkate jaunak 1920ko azaroaren 2ko gau-eskolari buruzko bando baten bidez haxe adierazten zion Hernani herriari: "Arratsaldeko zazpietan irekiko dela gau eskola helduentzat. Hamabi urtetik gorako nahi duen guztiak eman dezala izena Udaletxeko idazkaritza". Urteak pasa eta, 1924an aldatzen da adina, 12 urtetik 14ra.

Gero, 1928an, 12 urterekin joan zitekeen gau eskolara, baina joan ez gero ezin zuten egunez eskolara joan.

Ikasturte bakoitzaren bukaeran Udal Komisioko arduradunak inguratzen ziren eskolara ikasketak neurtzera eta azterketak egin eta sariak banatzen zizkieten neska-mutilei. Udalak ziurtagiria ematen zuen eta bertan adierazten zen "el buen estado de aplicación y cultura en que se encuentran los alumnos de ambos sexos". Urte hauetako agiriak daude artxi-boan: 1913, 1915, 1920, 1921, 1922; garaian garaiko alkateak izenpetuak: José M^a Ubarretxena, Joakin Arbelaiz, Gregorio Mendia...

Artxi-boan, Casildari buruzko beste agiri bat dago, hau politikoa. Udaletxean egindako plenoan denek aho batez onartzen zuten Casilda Liceaga "sin tacha política" zela. Akta idazkariak, Jenaro Bermek, izenpetzen du eta horrela bukatzen da: "Hernani, 14 de Agosto del 1937. II Año Triunfal".



DESTILERÍA DE LEÑAS Y
FÁBRICA DE PRODUCTOS QUÍMICOS

Hijos de Jaime Puig
(Nombre Comercial Registrado)

HERNANI (Guipúzcoa)
TEL. 41.5921

Casildak eskolan igaro zituen 47 urteetan aldaketa garrantzitsuak ezagutu zituen bere lanean. Kontuan izan behar ditugu politikan izan ziren gerta-kizunak: Alfonso XIII.aren erregetza, Lehen Mundu Gerra, Miguel Primo de Riveraren diktadura, 1931ko apirilaren 14an bigarren Errepublika, 1936an Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra. Gora-behera guztiok irakaskuntzan aldaketa sakonak eragin zituzten, eskoletan nabari izaten da mo-mentu bakoitzaren politika:

- 1900-1923. Sortzen dira *Instrukzio Publikako*

Ministerioak. Edukazio primarioak hartzen du indarra.

- 1924-1930. Primo de Riveraren diktadurak edukazioari garrantzia handia ematen dio. Eskola berri asko sortzen dira zortzi urtetan.
- 1931-1936. Gobernuan sozialistak eta errepublikarrak daude. Eskoletan plaza berriak sortzen dira, eta horiek haurtzaroari ematen diote garrantzia.



Fagollaga auzoko Eskola Munizipala, 1927/28 ikasturtean. Ezkerretik eskubira eta goitik behera; **1go lerroa:** Maria Etxeberria Santa Kruz, Antonia Izagirre, Maria Errazkin Zubiarrain, Teresa Zubiarrain Otxotorena, Anttoni Leonet Bikandi, Mercedes Otegi Aranburu, Dolores Santa Kruz Arretxe, Feliciano Alberdi, Candi Etxeberria Santa Kruz, Josefa Azpeitia Zabaleta, Isabel Leonet Bicandi, Maria Urdangarin Galparsoro; **2. lerroa:** Paco Albistur, Jaime Puig Villar, Evaristo Elizondo Idarreta, Santi Gorrochategi Liceaga, José Elorza Aranburu, José María Puig Villar, Esteban Izagirre, Tomás Urdangarin Galparsoro, Miguel Liceaga Arrieta, José María Etxeberria Santa Kruz, Joxe Oiarbide, Iñaxio Oiarbide Aranburu, Imanol, Casilda Liceaga Larburu (maistra); **3. lerroa:** Antonio Albistur, Pablo Zubiarrain Otxotorena, José María Eizmendi Zabaleta, Dámaso Arruti Otegi, Augusto, Manuel Anzizar, Antonio X Iraola, Esteban Anzizar, Cayetano XX, XXX, Inasi Errazkin Zubiarrain, Juliana XX; **4. lerroa:** Bautista Leonet Bicandi, Pilar XX, XXX, Eustakia Elizondo Idarreta, María Pilar Puig Villar, María Azpeitia Zabaleta, Antonia Oiarbide Aranburu, Leandro Irazusta Liceaga, Elvira Liceaga, María Victoria Etxeberria Santa Kruz, Josefa Lizarralde Iraola, Juanita Urdangarin Galparsoro, Joakina Elorza Aranburu, Victoria Anzizar, XXX; **5. lerroa:** Manuela Etxeberria X, X Etxeberria, Anton XX, José XX, Angel Gorrotxategi Liceaga, X Etxeberria Liceaga, Carmen Azpeitia, Pilar Leonet Bicandi, José Lasa, Juanito Lizarralde Iraola, Francisco XX, Joxe Zubiarrain Otxotorena.



Fagollaga auzoko Eskola Munizipala 1931/32 ikasturtean. Ezkerretik eskuinera, eta goitik behera; **1go lerroa:** Ignacio Arretxe Peruarena, Pedro Santa Kruz Oiarzabal, Angel Gorrotxategi Liceaga, Juan M^a Lasa Oiarzabal, Luis Liceaga Arrieta, Paco Arizmendi Mendizabal, Xixario Lizarralde Iraola, Xanti Gorrotxategi Artola, Alfredo Kanal; **2. lerroa:** M^a Victoria Etxeberria Santa Kruz, Eugenio Lasa Oiarzabal, Joxe Oiarzabal Narbarte, Manuel Etxeberria Izagirre, Juanito Oiarzabal Narbarte, Paulino Otxotorena Ollokiegi, Nikolas Santa Kruz Oiarzabal, Luis Gorrotxategi Artola, Ambrosio Lizarralde Iraola, Jose Manuel Ugalde, XXX; **3. lerroa:** Pilar Iraola Miner, Jose M^a Urdampilleta Otegi, Lazaro Etxabe Oiarzabal, Juanito Leonet Bikandi, Bixente Liceaga Aranburu, Paulo Arizmendi Mendizabal, Blas Etxeberria Santa Kruz, Felipa Villarrolain Retegi, Eulalia Leunda Miner, Pilar Liceaga Arrieta; **4. lerroa:** Pepita Iraola Miner, Kristina Leonet Bikandi, Jesusa Orayen Azpeitia, Teresa Izagirre, M^a Dolores Puig Villar, Mercedes Arretxe Perurena, Maria Altuna Gastesi, Ramon Liceaga Aranburu, XXX, Anttoni Etxeberria Izagirre, Obduli Gorrotxategi Liceaga, Angela Etxabe, XXX; **5. lerroa:** Patxi Ugalde Altuna, Juana Ugalde Altuna, Gregori Elorza Aranburu, Feliciano Miner Atorrasagasti, Marcelina Etxeberria Santa Kruz, Juli Miner Atorrasagasti, Gabriela Miner Atorrasagasti, Paco Elorza Aranburu, Esteban Elorza Aranburu, Luis Otxotorena Ollokiegi, Maria Ugalde Perurena.

- 1936-1939. Gerra zibila. Nor joan eskolara beldurraren beldurrez? Ez ziren eskolak itxi, baina aurrerapauso gutxi eman zen irakaskuntzan, eskolaratzeak gehiago egin zuen atzera. Euskal maisu eta maistra asko urrutiratuak, fusilatuak, kargutik kenduak izan ziren, beste askok ihes egin behar izan zuten.
- Gerraren ondorioz, familietan pobrezia, dirurik eza, gosea... Herrialde batzuetako maisu eta maistra asko izan ziren zigortuak: batzuk urrutiratuak, beste batzuei irakastea debekatu zitzaizkien. Nahitaez erregimenarekin bat egiten zutela erakutsi behar zuten. Ezin zu-ten euskaraz irakatsi nahiz Eskola Rurala eta herria, gurea, "baskofiloa" izan.



Fagollaga auzoko Eskola Munizipala 1944ko abuztuaren 5ean. Ezkerretik eskuinera, eta goitik behera; 1go lerroa: Antonio Erroizenea Miner, Antonio Oiarbide Elorza, Francisco Arretxe Peruarena, Antoni Oiarzabal Leunda, Joxe Mari Ugalde Peruarena, Luis Urdangarin Galparsoro, Antonio Liceaga Arrieta, Jabier Marko Otxotorena, Ambrosio Cerain Miner, Bixente Etxeberria Otegi; 2. lerroa: Ixabel Iraola Miner, Maritxu Elorza Aranburu, Ines Urdangarin Galparsoro, Kontxita Urdanpilleta Otegi, Margari Santa Kruz Otxotorena, Joakina Altuna Gastesi, Casilda Liceaga Larburu (maistra), Sabina Miner Atorrasagasti, Juanita Ugalde Peruarena, Axun Orayen Azpeitia, Juli Miner Atorrasagasti, Pakita Arruti; 3. lerroa: Axun Erroizenea Izagirre, Ines Cerain Miner, Manoli Oiarzabal Narbarte, Isabel Altuna Gastesi, Miren Arretxe Peruarena, Itziar Miner Atorrasagasti, Dolores Miner Oiarzabal, Inasita Oiarbide Aranburu, Miren Santa Kruz Otxotorena, Miren Imaz, Pilar Erroizenea Miner, Maria Oiarbide Elorza; 4. lerroa: Gaspar Otegi Arbe, Simon Ugalde Peruarena, Leandro Etxeberria Izagirre, Jose Elorza Aranburu, Ignacio Eizmendi Arocena, Manuel Otxotorena Aranburu, Joxe Ugalde Peruarena, Juanito Iraola Miner, Imanol Miner Oiarzabal, Migel Urdanpilleta Otegi; 5. lerroa: M^a Teresa Etxeberria Otegi, Pilar Villarroilain Retegi, Joakina Oiarbide Marko, Kontxi Elorza Aranburu, Joakina Bengoetxea Azpeitia, Manoli Elorza Aranburu, Mañoli Oiarbide Aranburu, Maritxu Oiarbide Aranburu, Joxe Mari Miner Oiarzabal.



Escuela Municipal del Surco de Fagollaga. Navarra
Patrocinio de alumnos
 1. Antonio Erroizenea Miner
 2. Antonio Oiarbide Elorza
 3. Francisco Arretxe Peruarena
 4. Antoni Oiarzabal Leunda
 5. Joxe Mari Ugalde Peruarena
 6. Luis Urdangarin Galparsoro
 7. Antonio Liceaga Arrieta
 8. Jabier Marko Otxotorena
 9. Ambrosio Cerain Miner
 10. Bixente Etxeberria Otegi
 11. Ixabel Iraola Miner
 12. Maritxu Elorza Aranburu
 13. Ines Urdangarin Galparsoro
 14. Kontxita Urdanpilleta Otegi
 15. Margari Santa Kruz Otxotorena
 16. Joakina Altuna Gastesi
 17. Casilda Liceaga Larburu
 18. Sabina Miner Atorrasagasti
 19. Juanita Ugalde Peruarena
 20. Axun Orayen Azpeitia
 21. Juli Miner Atorrasagasti
 22. Pakita Arruti
 23. Axun Erroizenea Izagirre
 24. Ines Cerain Miner
 25. Manoli Oiarzabal Narbarte
 26. Isabel Altuna Gastesi
 27. Miren Arretxe Peruarena
 28. Itziar Miner Atorrasagasti
 29. Dolores Miner Oiarzabal
 30. Inasita Oiarbide Aranburu
 31. Miren Santa Kruz Otxotorena
 32. Miren Imaz
 33. Pilar Erroizenea Miner
 34. Maria Oiarbide Elorza
 35. Gaspar Otegi Arbe
 36. Simon Ugalde Peruarena
 37. Leandro Etxeberria Izagirre
 38. Jose Elorza Aranburu
 39. Ignacio Eizmendi Arocena
 40. Manuel Otxotorena Aranburu
 41. Joxe Ugalde Peruarena
 42. Juanito Iraola Miner
 43. Imanol Miner Oiarzabal
 44. Migel Urdanpilleta Otegi
 45. M^a Teresa Etxeberria Otegi
 46. Pilar Villarroilain Retegi
 47. Joakina Oiarbide Marko
 48. Kontxi Elorza Aranburu
 49. Joakina Bengoetxea Azpeitia
 50. Manoli Elorza Aranburu
 51. Mañoli Oiarbide Aranburu
 52. Maritxu Oiarbide Aranburu
 53. Joxe Mari Miner Oiarzabal

En la Escuela
Paula Arriaga
 15 de Noviembre de 1944
 Archivado en la Escuela
 de Huérfanos Jefe
 Joaquín Oliva

Geletan, aldiz, zein koadro jarri eskolan: erregetza garaian Alfonso XIII.aren argazkia eta gurutzea, Primo de Riverarekin gurutzerik ez, Gerra Zibila-rekin Francisco Francoren argazkia eta gurutzea, gerra ondoren Falanjeko José Antonio Primo de Riveraren argazkia. Banderaren adibidearekin, zer esanik ez.

Casildaren eskolan bandera errepublikarra egon omen zen eta gero Francoren garaian espainiar bandera.

Bai, bai, Casildak aldaketa politiko guzti horiek bizi izan zituen. Hala ere, tente eutsi zion bere buruari eta Eskolari.

CASILDAREN ONDORENGO MAISTRAK.

Casildak 1954ko abenduan utzi zuen eskola. Urtebete beranduago, 1955ean, Fagollagako Eskola Munizipala Publiko izatera pasatzen da, beraz, Delegazioaren menpean geratzen da. *Escuela de Epele* izenarekin erregistratu zen, auzokoek Fagollagako Eskola deitzen bazioten ere. Hortik aurrerako maistrak aipatuko ditut, denak aipatuko ez baditut ere, gehienak behintzat bai. Plaza propietatean hartzeko, oposaketak egin behar ziren eta hor hasten dira maistren joan etorriak.

- 1955eko uztaila arte M^a Dolores Insausti Arocena, Hernanikoa.
- 1955-1956 ikasturtea. Angelita Insausti Arocena, Hernanikoa.
- 1956-1957 ikasturtea. Juani Otxotorena Recalde, Hernanikoa.
- 1957-1958 ikasturtea. Milagros Ituarte Arsuaga, Ordiziakoa.
- 1958-1959 ikasturtea. Milagros Ituarte Arsuaga, Ordiziakoa. Fagollagako Eskolan maistra batentzat ume gehiegi zegoen 1959-1960 ikas-

turtean, eta Delegazioaren aginduz bi ikasgelatan banatu zituzten: erdiak Fagollaga eskolan gelditu ziren M^a Jesús Camposekin eta beste erdiak Milagros Ituarterekin Ereñozun. Milagros Ituarterek bi ikasturte egin zituen hemen. Behin, eskola ematen ari zela, Josefina Oloriz inspektorea, aurretik inolako abisurik eman gabe, klasean sartu omen zen eta euskaraz ari zelako izugarritzko errieta eman omen zion.

- 1959-1960 ikasturtea. M^a Jesús Campos Illarremendi, Oriokoa. M^a Jesús Camposek ikasturte bakarra egin zuen. Aita maisua zuen eta berak lagundu omen zion eskola ikustera, eta segituan esan omen zion: *"Zuk ezin zara hemen bakarrik egon, leku bakartia da hau, hemen ez dago inguruan etxerik"*. Parajea eta jendea ezagutu ondoren, Epeleko Etxeberrin bazkaltzen omen zuen, eta gerora bertan pasatzen omen zuen astea. Hau izan omen zen bere lehenengo eskola, 20 urte zituen. Leku batetik bestera urte batzuk pasa ondoren, Ereñozun ezkondu omen zen.
- 1960-1961 ikasturtea. Feli Lopetegi (gero Ereñozun egona).
- 1960-1961 ikasturtea. Milagros Ituarte Arsuaga, Ordiziakoa.
- 1961-1962 ikasturtea. Isabel Espinaco Lera. Isabel Espinaco Lera Donostiatik etortzen zen, eta bederatzi ikasturte egin zituen. Oso gustura egon zen eta haurrekin ere oso ondo moldatzen zen. Ereñozuko orduko bere ikasleak 2003ko udan omenaldia egin zioten.
- Teresa Zurutuza Villar, Ordiziakoa.
- Milagros Garralda, Bergarakoa.
- Don Antonio.
...



Fagollaga auzoko Eskola Munizipala 1956-1957 ikasturtean. Ezkerretik eskuinera, eta goitik behera; **Mutilak, 1go lerroa:** Candido Otegi Arbe, Florian Oiarbide Marco, Jose Maria Artola Santa Kruz, Jose Susperregi Santa Kruz, Antonio Urbizu Villarroilain, Juan Erroizenea Izagirre, Jose Luis Camio Eteberria, Jeremias Albistur Aranbauru, Santiago Etxeberria Otegi, Luis Mari Etxabe Oiarzabal, Jose Luis Otegi Arbe, XXX, Juan Mari Oiarzabal Leunda; **2. lerroa:** Paulino Beasain Irastorza, Juanito Oiarbide Aranburu, Martin Etxeberria Iriberri, Jose Antonio Etxeberria Iriberri, Paco Miner Oiarzabal, Leandro Miner Oiarzabal, Jose Luis Zabaleta Etxeberria, Joxe Mari Zabaleta Aranburu, Iñaxio Eizmendi Arocena; **3. lerroa:** XXX, Pedro Erroicenea Miner, Julian Albistur Aranburu, Jose Mari Villarroilain Retegi, Gregorio Santa Kruz Marco, Jose Manuel Azpeitia Zubillaga. **Neskak, 1go lerroa:** Inaxi Susperregi Santa Kruz, Maria Carmen Susperregi Santa Kruz, Manoli Etxeberria Iriberri, Arantxa Miner Oiarzabal, Kontxita Oiarbide Aranburu, Bizenta Erroizenea Miner, Milagros Errazkin, Marisa Bengoetxea Azpeitia, Maria Jesus Bengoetxea Azpeitia, Klarita Liceaga Aranburu, Micaela Oiarbide Aranburu, Juani Otxotorena Rekalde (maistra); **2. lerroa:** Maria Luisa Urbizu Villarroilain, Maria Carmen Santa Kruz Lekuona, Koro Santa Kruz Lekuona, Aureli Fernandez Etxeberria, Begoña Miner Oiarzabal, Mari Carmen Garaialde, Arantxa Aranburu Zabaleta, Francisca Etxeberria Otegi, Milagros Marco Lizarralde, Begoña Artola Santa Kruz; **3. lerroa:** Lidia Garbaio, Maria Jesus Zabaleta Etxeberria, Mari Carmen Aranburu Zabaleta, Agustina Eizmendi Arocena, Manoli Zabala Iriberri, Faustina Artola Santa Kruz, Manoli Fernandez Etxeberria.



Ereñozu auzoko Eskola Publikoa 1958-1959 ikasturtean. Ezkerretik eskuinera, eta goitik behera; **1go lerroa:** Jose Antonio Etxeberria Iriberrri, Martin Etxeberria Iriberrri, Milagros Ituarte Arsuaga (maistra), Jabier Lazkano, Jose Susperregi Santa Kruz, Maria Carmen Susperregi Santa Kruz, Manoli Etxeberria Iriberrri, Begoña Miner Oiarzabal, Arantxa Aranburu Zabaleta; **2. lerroa:** Fermin Zabaleta Etxeberria, Jose Luis Artola Leonet, Patxi Artola Santa Kruz, Anttoni Etxeberria Etxenike, Begoña Artola Santa Kruz, Iñaxi Etxeberria Etxenike, Koro Santa Kruz Lekuona, Maria Carmen Santa Kruz Lekuona; **3. lerroa:** Jose Maria Zabaleta Aranburu, Anttonio Maria Etxeberria Iriberrri, Jose Luis Kamio Etxeberria, Lazaro Oiarbide Aranburu, Paco Miner Oiarzabal, Leandro Miner Oiarzabal, Maria Carmen Aranburu Zabaleta, Maria Angeles Aranburu Zabaleta, Maria Lurdes Lazkano, Maria Jesus Zabaleta Etxeberria; **4. lerroa:** Juanito Oiarbide Aranburu, Martin Etxeberria Etxenike, Jose Antonio Lazkano, Jose Luis Zabaleta Etxeberria, Maria Isabel Telletxea Goikoetxea, Maria Karmen Urbizu Villarrolain, Maria Angeles Kamio Etxeberria, Margari Telletxea Goikoetxea, Maria Anttoni Oiarbide Marko, Inaxi Arruti Zabaleta, Faustina Artola Santa Kruz, Maria Lourdes Artola Leonet.



Fagollaga-Epele eskola 1966/67 ikasturtean. Bigarren lerroan maistra, Isabel Espinaco Lera, ikusten dugu.

FAGOLLAGAKO ESKOLATIK PASATAKO HAURREN IRITZIAK

Ama Birjin Milagrosa eraman zuten Fagollagako Eskolara eta hemendik Ereñozuko San Antonio Elizara prosezioan 1927an. Ama Birjiñaren albo bakoitzean bi neska zintari elduaz. Horietako bat Axun Irazusta, Casilda maistraren alaba. Milagrosak hantxe iraun du Eliza barruan aldarean orain dela denbora gutxi arte. Gaur koroan museoan dago. Maiatzean "Con flores a Maria", "Oh Maria madre mia" kantatzen zuten.

Urte hauen inguruan euskeraz sumatuez gero botoi bat kordoi batekin pasatzen zuten haur batek besteari. Erderaz hitz egiten ikasteko.

Jolastuaz, kantatuaz esaten omen zuten:

Txori ta txori
txori gaixua.
Txorik edan du
mama gosua.
Hiltzen bada
kanposantua.
Hernaniko plazan
hiru atso dantzan
hirurak ez dute
xox-erdi bat boltsan.

Horrek ere izango du: "Ontze edo Kintze".

Leonet Bikandi, ahizpak.

Irakurtzen ikasteko kartila, Katona, erabiltzen genitun. Idazteko manuskritoak, debereak egiteko kuadernilloak. Irakurtzeko Sra. zutik, gu exerita, txandaka segidan paseaz, adi ez eonakin belauko jarniaz...

Errepublikara garaian Eskolan kanpotik Kamio aldean Bandera errepublikarra, oria, gorria eta morea, eta kantatu "Arriba España, alzad los brazos...".

Etiket ekartzen genuen zerbait jateko, guk txokolatia eta ogia eta eguardi aldean esaten zigun maistrak: "orain jan ekarri dezutena eta arreksaldean etxean jango dezute potajea".

Maria Santa Kruz Oiarzabal

Uholdeak izan ziren 1931 edo 1932an. Gu hiru senide giñen, Akola baserritik jeisten gineenak eskolara. Larri asko ibiliak izan ginen. Menditik jeisten zen ura kamio gaintetik zijoan ibaira. Ia, ia, txikia eraman zigun urak nik eskutik naramala, pasatzerakoan eskolara. Izugarritzko ur-golpea izan zan. Txertoa ere jartzen ziguten. Neri 3 bider jarri zidaten eta itsa ez. Pentsatu nuen, haurra izan, alkandoraren manga luzeagatik zala, berriro jarri behar baziraten ere hartu goraiziak eta ezkerreko manga moztu nion txertoa hobeto hartzeko. Hura disgustua eman nion amari. Geroztik horrela ibilia nuen alkandora hura, manga bat luzea eta bestea motza. Besterik ez genuen eta.

Antonio Santa Kruz Oiarzabal

Hasi nintzen 6 urtekin Fagollagako eskolan eta 12kin utzia.

Hernaniko Parrokian egin nuen Komunio haundia On Jose M^a Maidaganekin. Azterketa On Karmelo Labakak egin. Igande goizetan San Antonio Elizan, sakristian, On Joakinek Dotrina ematen genuen, galdera eantzunak.

Casildak abilitate haundiko eskuak zituen. Etiket maindire zahar baten puska eraman eta bainikak egiten erakutsi zidan. Ni baino neska haundiago batek erakutsi zidan hariak ateratzen. Irakurtzeko taldeka jartzen ginan bere mahaiaren bueltan, guk irakurri eta guri entzunez berak jerse puntua egiten zuen bitartean semeentzako.

Joakina Oiarbide Marko

Casildak ederki zekien bordatzen. Neri bordatzen erakutsi zidan. Harekin ikasitakoekin ezkondu nintzanean, nere bodako arreo guztia neronek egina eraman nuen.

Maritxu Oiarbide Aranburu

Neska-mutil nagusiak asko laguntzen zien haur txikiagoeri. Eskola barruan eta eskola inguruan makiñabat lan egiten genion danen artean Casildari: egurrak txikitu, jardiña txukundu, bazterrak garbitu, loreak zaindu, kristalak garbitu, etxetik eskola bitartean piñu-buruak bildu eta ekarri, sua edo estufa pizteko...

Ubarroto baserritik Fagollaga eskolara lau biaje egiten genituen eta Latxen itxoin egiten ziguten horko haurrak. Guk, Ubarrotokoak, pena izaten genuen, bide luzeagoa genuelako. Latxekoak lasaiago bazkaltzen zuten eta jolastu gehio gure zai zeuden bitartean.

Joakina Oiarbide Marko

Hasia nintzen eskolan 6 urtekin eta 14 urtekin Eskola Profesionalean sartu, bizikletaz Hernanira. Adarraganeko txokolategian uzten genduen bizikleta.

Jose Mari Miner Oiarzabal

Nerekin 1957/58an pasa ziren haurrak pizarretik kuadernotara idaztera. 1959. Haur gehiegi zegoenez zatiketa egin zen zen Fagollagako Eskolan, bertan zegoen maistra Milagros Ituarte. Hau pasa zan erdiekin Ereñozura. Fagollagara etorri zen M^a Jesus Campos. Udaletxeak aginduta Apaiz etxearen beheko lokala abilitatu zuen.

Jose Mari Miner Oiarzabal

AGURRA

Fagollagako Eskola garabiak edo eramango zuten, baina ... hor ibili zineten guztien oroimenak ez.